El equipo de gobierno, impulsor del proceso, valora positivamente el mismo, ya que, en su opinión, "sirven para explicar, dar a conocer y comprender las modificaciones propuestas". Los concejales no adscritos Jose Mari Lete y Onintza Mendiola destacan su "voluntad de seguir trabajando en busca de una solución, ya que esto es al fin y al cabo lo que nos demandan los ciudadanos". El concejal no adscrito Jose Angel Lizarraga "no se siente responsable de que en su día ANV y PSOE paralizasen el proceso puesto en marcha en la legislatura anterior". El edil opina que el plan actual "necesita un cepillado en algunas cuestiones y más énfasis en otras" y cita como necesidades importantes "la creación de empleo y la movilidad". Lizarraga afirma que "Urretxu tiene derecho a crecer equilibradamente; si hay voluntad por parte del equipo de gobierno, ahí estaré para ayudar". El PNV, por su parte, entiende que "la metodología que se está siguiendo no es la adecuada para la discusión de las distintas opiniones; el proceso sirve para conocer, pero no para compartir ideas ni dis-

cutir las distintas posturas". La formación jeltzale sostiene que "este proceso en cuestión, tal cual está planteado, con su coste incluido, no lo vemos necesario, ya que hubiera sido posible hacerlo de otra manera con un considerable ahorro". El PSE-EE, también se muestra crítico con el proceso: "el aprobar o no las normas es una cuestión de fondo, no de forma. Existen diferencias de

fondo entre los partidos, y en cierta medida no comprendemos cómo se ha iniciado este proceso, que está costando un dinero a las arcas municipales, si no se tiene ninguna garantía de que las normas saldrán adelante en la votación de diciembre". Ezker Batua-Aralar valora positivamente el proceso, ya que estas sesiones "facilitan el debate entre todos los partidos políticos".

*Alderdi guztiekin ez dute berdin ikusten  
ireki berri den prozesuaren baliagarritasuna.*



## Urretxuarren iritziak / Preguntas al ciudadano

Gorka Azkarate - M.ª Carmen Viedma

**Ezagutzen al duzu Udalak aurkeztu duen Arau Subsidiarioen proiektu berria? Zer iruditzen zaizkizu herritarrok Udalaren asmoen berri jakiteko baliatzen diren ekimen partehartzaileak? Zein hobekuntza egingo zenitzke herrian?**

**RICARDO LIZARRALDE**



**"Udalak eta herritarrek harremana izatea ondo ikusten dut"**

Badut informazio pixka bat eginago denari buruz. Udalak eta herritarrek harremana izatea eta herritarrei zein proiektu egingo diren ezagutaraztea ondo ikusten dut. Gero ados egotea edo ez beste gauza bat da. Lanpostuak sortzea ondo legoke, baita aparkaleku gehiago egitea ere. Kultur arloan, kiroletan, ondo gaudela uste dut. Etxebitzaren gaia ere kezkagarria da, garesti daude, erabilera eman beharko litzaieke hutsik dauden lokalei.

**TRINI FERNANDEZ**

**"Beharrezkoa da herriak udalaren asmoen berri izatea"**

Ezagutzen dut gutxi gorabehera karpa harten aurkeztu zena, egon nintzen ikusten. Beharrezkoak ikusten dut jendeak jakitea udaletxeak ze asmo duen. Garai batean egunkarien bidez jakiten genuen udalaren asmoen berri; era honetako ekimen berriak ondo daudela uste dut. Etxebitzten beheko solairuekin zerbaite egin beharko litzateke, asko eta asko hutsik daudelako.



**JOSE MIGUEL LIZARRALDE**



No vi las carpas, pero me parece bien la iniciativa, para que se conozca lo que está pensado hacer, aunque luego no se tenga en cuenta demasiado la opinión de la gente. Al ser temas sobre los que uno no tiene capacidad de decisión directa, pues a veces tampoco piensas demasiado en ello. En cuanto a las mejoras que implantaría en Urretxu, creo que el tema del aparcamiento es un problema.

**"El tema del aparcamiento es un problema"**

**SANTIAGO PUERTAS**

Me parece bien todo lo que sea informar, y más aún que como ciudadanos podamos dar nuestra opinión. En el tema del tráfico hay mucho trabajo por hacer. También me gustaría que hubiese más colaboración ciudadana en las asociaciones, en concreto en la Sociedad Aterpe.



*¿Conoces el nuevo proyecto presentado por el Ayuntamiento en relación a las Normas Subsidiarias? ¿Qué te parecen las iniciativas participativas en las que se dan a conocer a la ciudadanía los proyectos del Ayuntamiento? ¿Qué mejoras harías en el pueblo?*

### ELENA ARRIARAN

Ez nintzen karpa ikusten egon, baina badakit zer zen bertan erakusten zena. Horrelako ekimenak ondo daudela uste dut, jendearen iritzia jasotzeko baliagarriak diren heinean. Leku estaliren bat behar dela uste dut, haurrek jolas dezaten eta bestelako feriak egiteko. Gazteentzat lekuak egokitu beharko lirateke. Aparkalekuak eta etxebizitzen gaia ere garrantzitsuak direla uste dut.



*"Leku estaliren baten beharra ikusten dut"*



### MALVINA ARRIETA eta ELISABETH MURILLO

*"Deberíamos debatir este tema entre todos"*



*Hemos visto la carpa, pero por fuera. Vemos bien este tipo de iniciativas, deberíamos debatirlas entre todos. Al fin y al cabo, todos vivimos aquí. El aparcamiento es un problema, y también la vivienda, debería haber más viviendas sociales. Un centro comercial también vendría bien, más cerca de los que hay ahora.*

### JOSEBA SALEGI, ANDER URIARTE eta JON MENDIZABAL

*Ikusi genuen karpa, baita barrutik ere, Urretxu 2020 zuen izena ekimenak, ezta? Ondo iruditzen zaigu herritarrei zer egin behar den azaltzea. Gure ustez herria nahiko ondo dago orohar; hala ere bidegorrian oinezkoen eta txirrindularien esparruen arteko bereizketa egingo genuke.*



*"Herria nahiko ondo dagoela uste dugu"*

### MILA MENDIZABAL

*Gauza bat eta besteren artean, ez nuen karpa ikusi, ez zitzaidan parean tokatu. Hala ere, horrelako ekimenak ondo daudela iruditzen zait, herriak arau subsidiarioen gaineko kontua zertan den jakiteko. Herrian gauza asko egingo nituzke, Gernikako Arbola plaza pixka bat konpondu, adibidez, gehiegizko hezetasunaren arazo hori.*



*"Gernikako Arbola plaza konponduko nuke, besteak beste"*

# Nolakoak dira Urretxuko familiak?

## Aztiker


Azken hamarkadetan Euskal Herrian aldaketa demografiko handiak gertatu dira (jaiotza eta heriotza tase-tan, bizi esperantzan eta biztanleriaren zahartzean, besteak beste). Aldaketa demografiko hauek harreman zuzena dute familia egituraren aldaketarekin.

Duela ez hainbeste urte arte, familia egituraren aldakete-taz hitz egiterakoan, familia zabaletik (aiton-amonak, gurasoak, seme-alabak, izeba-osabak, eta abarrek osatutako familiak), familia nuklearretara (gurasoak seme-alabekin) eman zen aldaketa hitz egiten genuen. Bainaz azken urteetan, azterke-

ta hori motz geratu da. Familia eredu berriak geroz eta presentzia handiagoa hartzen ari baitira gure gizartean. Oraindik ere, familia nuklearrak gehien-goa badira ere, eta familia zabalak desagertu ez badira ere (gutxi batzuk geratzen dira), bestelako familia motak ere ageri dira gure etxeetan: mono-parentalak deitutakoak (gurasoetako bat, normalean ama, seme-alabekin) eta pertsona bakarreko etxebizitzak, besteak beste.

Urretxu zenbakitan web gunean, 2009ko urtarrileko erroldako datuetatik abiatuta, Urretxun bakarrik bizi diren pertsonen datuak bildu ditugu. Datu hauen azterketatik hauek nabarmenduko getituzke:

- Urretxuko biztanleen %5,4, bakarrik bizi da. Hots, Urretxuko 537 etxebizitzatan pertsona bakarra bizi da. Urretxuko etxebizitza bakoitzean batez beste 2,7 pertsona bizi dira.
- Horietatik, ia erdia (%46,4) 65 urtetik gorako pertsonak dira, gehienak emakumeak (%73,1). Adin tarte honetan, 65 urtetik gora, biztanleen %18,6 bakarrik bizi da.
- Herenak (%33,1), berriz, 25-44 urte bitartean dituzte. Adin tarte honetan batez ere gizonetakoak direlarik bakarrik bizi direnak (bakarrik bizi direnen %70,8 dira gizonetakoak 25-44 urte bitartean).



*Oharra: gizonetakoak aldean - seinuak ez du negatiboa adierazten, soilik zenbakari erreparatu, ez seinuari.*

Zer erakusten digute datu hauek? Alde batetik, etxebizitza politika egoki bat aurrera eramateko kontuan hartu beharreko datuak dira. Etxebizitza bakoitzera geroz eta pertsona gutxiagok betetzen baitute. Familia eredu berrietasunari gara, eta familia berri horiek geroz eta kide gutxiagoz osatutakoak dira: Urretxun etxebizitzen %20,7an kide bakarra bizi da, etxebizitzen %29,4an bi kide bizi dira, eta 3 kidez osatua kide etxebizitzen %22,1; beraz, hamar etxebizitzetik 7tan (%72,2) lau kide baino gutxiago bizi dira. Kontuan hartzeko datua dudarik gabe.

Bestetik, azpimarratu ere 65 urtetik gorako pertsonak geroz eta leku handiagoa hartzen ari direla gure gizartean, eta baita Urretxun ere; hauentako dezente gainera bakarrik bizitzen. Biztanle hauen adin eta osasun egoera kontuan hartuta argi dago zerbitzu eta behar bereziak dituztela, eta datu hauek oso kontuan hartu beharko direla, dudarik gabe.

## Urretxu zenbakitan web gunea

Era honetako azterketak egiteko hamaika datu bilduak ditugu Urretxu zenbakitan web gunean, [www.urretxu.net](http://www.urretxu.net) helbidean aurkituko duzuena. <http://83.246.72.154/liburu/kapitulu/617>.

# Berunezko justizia; proiektu imaginatiboa

*Alex Areizaga KKinzonaren izenean*

KKinzona proiektuaz hitz egiteko, ezer baina lehen, proiektu komunikatiboa baino imaginatiboa dela esan beharko nuke; ametsak uhin bilakatzen dituen bozgorailua edota ezinezkoa zine-zko bihurtzen duen pantaila erraldoia.

"Berunezko Justizia; Ixilik Bang zuen izena" film laburra ere pantaila horretan ikusi ahal izan zen azaroaren 14an. Bainaz ez zen film bat bakarrik izan,



ikusgai egon zena. Are gehiago izan zen. Eta ez bakanrik bere iraupenak, 30', kategoria horretatik aterratzen zuelako. Herriko 60 gaztek parte hartza, Azpeitian tren bat alokatzea, Nafarroako Bardeetako desertura bi aldiz joatea edota Labeaga antzokian 400 pertsona batzea emanaldi batean ikus daitekeen netik haratago doalako baizik.

Azken batean, ez baita film bat egitea edo ez egitea.

Ez baita 60 lagun bakeroz, indioz eta mexikarrez janztea edota Ixilik Bangek Perry Warrimanen aurka altxor batengatik borrokatzea. Ilusioa sortzea da; behingoz, nahi dugun edozer egiteko gai garela sinistea edota finean, eguneroko errealitate gogor honetan irrifarre bat lapurtu ahal izatea.

Hortik aurrera, hau hasiera bat besterik ez dela. Harro egoteko moduko hasiera bat, eman dezakegun guztiaren aurrerapen bat edota datorren urtean izango denaren anaia edo arreba txikia. Gonbidapen bat ere bada, hurrengoan parte hardezazuen. Lehehengo harria bota dugu, eta orain, kristala puskatzea falta da. Zorionak guztiei.

## The Hot Dogs taldearen diska berria kalean

*Gorka Azkarate*

Urretxuko The Hot Dogs musika taldeak bere laugarren lana aurkeztu du orain gutxi, "Nothing but a Bad Day" izenekoa ("egun txar bat soilik"), GP Producciones disko etxearen eskutik. Diska CD euskarrian zein biniloan kaleratu dute eta salgai dago dagoeneko. Lan honek talde urretxuarraren orain arteko bidea hausten ez duen arren, bada, neurri batean, mugari baten modukoa: inongo estalki zein tapakirik gabe agertzen zaigu The Hot Dogs abestien joanean, abestiek "garenak gara eta hau da eman nahi duguna", esan nahi balute bezala. Euren iritziz, lan hau da orain artekoen artean taldearen esentziatik hurbilen dagoen ekoizpena.

Une honetan diskoaren promozioan buru-belarri murgilduta dago taldea, eta estatu mailako itzulia otsailean hastea aurreikusten dute. Bestalde, helburua uda parteko jaialditan euren lekutxoa egitea da, promoziorako bide eraginkorrenetakoia izaki, jaialdi erraldoi hauetan parte hartza, ondoren jaialdi horiek sarritan gorabeheratsu xamarak



izan arren eta bertan emandako kontzertuak gatzik gabeak, ordutegi eta entzulegoaren arabera. Herrian ere egin zuten lanaren aurkezpena, Labeaga aretoan. Berriz ere Gaztetxean jotzeari ez liokete uko egingo, bertan sortzen den giro berezia gustuko dutelako.

Aurrera begira, ia ziurtzat jo daiteke talde urretxuarrak beste diskaren bat kaleratuko duela; taula gainean urte mordoxka daramaten arren (18 urte, 1991an taldea sortu zutenetik), gogoz daude gauza berriak egiten jarraitzeko. Hot Dogs taldearen aurreko lanak "Rock & Roll Army 69" (1999), "Powerhouse" (2000) eta "III" (2006) izan ziren.

# Irimoko ondarea ezagutaraziz

*Kizkitza Ugarteburu*

**Ziur askotan igo zaretela Irimora,  
baina zein bidetatik?  
Gai al zarete azaltzeko  
zein bidetatik igo zarenen,  
“betikotik”, “bideluzetik”...  
Hemendik aurrera errazago  
izango zaizue galdera horri  
erantzutea, Lekaio Kultur Elkarteak,  
zenbait urretxuarren laguntzarekin,  
auzolanean eraikitako toponimia  
harriei eta ibilbideei esker.**

Lekaio kultur elkartea Irimo mendebaldean 17 toponimia harri kokatu eta ibilbideak prestatu ditu auzolanean. Udaberrian hasiko den bigarren fasean Nebera inguruari ekingo diote.

Iturri berri bat ere eraiki dute mendebalde guñean, “Bideluzetik” igoz. “Urretxuko naturgune garrantzitsuena Irimo denez, informazio zabala eskaintzen du herriaren nortasunari buruz, toponimia, hizkuntza, ondare historiko eta etnografiko arloetan”.

Egitasmo hau burutzeko Jose Luis Ugartek idatzitako “Urretxu eta Zumarragako toponimia”-n oinarritu dira. Ikerketa hauek liburutegietako apaletan geldirik dauden bitartean, toponimoak galtzen joan daitezke. Ekimen honek, gaur egungo zein ondorengo belaunaldiek, toponimia honen ezagutza eta erabilera bultzatu nahi du.



▲ Toponimia harrietako bat



▲ Iturrihaundi iturri berria

Lekaiok udaletxean aurkeztu zuen proposamena eta Goimenek ere aurrekontuaren %55 eko dirulaguntza eskaini du. Zintzo Mintzo, Ostadar eta Goierri elkartetara ere jo zuten laguntza eske eta lerro hauen bitarbez eskerrak eman nahi dizkiete.

Irimon ibiltzeko bideak ez dira ezagunak, herritarrok ez dakigu Irimon nondik nora ibili garen esaten. Adibidez, “askotan entzuten dugu Irimo-

*El objetivo es dar a conocer y promover el uso de la toponimia.*



▲ Auzolanean aritutako taldekoide batzuk

ra igo naiz "betiko bidetik" eta zein da bide hori?" diote. Alde horretatik, egitasmo honen helburua toponimia eta Irimon ibiltzeko beste bide batzuk badirela ezagutaraztea da herritarrok eta jendeak erabil ditzan.

### *Santa Bárbara será el punto de partida y llegada de todos los itinerarios.*

Egitasmoaren sorreratik, argizagoen interes desberdinak uztaritu eta errespetatu behar zirela, Irimon ganadurako erabiltzen diren lursail pribatuak daudelako. Hori lortzeko asmoz baserritarrekin adostu da dena, beraiek eta lehen aipatutako elkarteak auzolanean lanean arituz.

Santa Barbaran jarriko den panel batean zehatzuko dute hainbat ohar: txakurrak, ibilgailuen eta motorren erabilera, sua, zabortegiak eta garbitasunari buruzkoak. Horretarako herrian onartutako araudietan

eta Gipuzkoako Foru Aldundiko "Gipuzkoako mendien foru arauetan ere oinarritu dira, ingurugiroa, aisiaidlia eta lursail pribatuak errespetatuz

Lehen fasean Irimo mendebaldean 17 toponimia harri kokatutu dituzte, ez mugarriak. Harriaren goialdean, toponimoa, lursailari dagokion izena, azaltzen da. Nebera ingurukoak, 8 bat, udaberrian kokatuko dituzte. Toponimoak, bide-ertzean gelditzen direnak, erabilienak, ezagunenak eta baserritarrek erabiltzen dituztenak dira. Harri guztiak norabideak ere ipini dituzte, hau da, gurutzera igotzeko zein distantzia dagoen eta zenbait kasuetan ere metroak aipatzen dira.

Ibilbide edo txango guztiek Santa Barbaran izango dute irteera eta amaiera. Asmoa da triptiko batean ibilbideak argitaratzea eta Santa Barbaran ipiniko den panelean hauek zehaztea. Irimoko fauna eta floraen ikerketa, etorkizunerako zainketa egitea eta bertako urbideak aztertzea izango dira etorkizuneko beste erronka batzuk.

Euskal jaietarako etnografia arloa aztertu izan du Lekaiok objektu eta tresnak sailkatuz. "Errege bidea ere aipatzeko da zentzu honetan".

La asociación cultural Lekaio, gracias a la colaboración de urretxuarras y baserritarras, ha colocado 17 piedras topónimas y ha señalizado varios itinerarios en la zona occidental del monte Irimo. También han construido una nueva fuente en esa zona. En una segunda fase colocaron otras 8 piedras en la zona de Nevera. En opinión de Lekaio, el monte Irimo ofrece muchísima información sobre la identidad de Urrexu, en aspectos como la toponimia y el patrimonio histórico y etnográfico. El objetivo principal de este proyecto es el de dar a conocer la toponimia y los diversos itinerarios posibles para subir Irimo, para que los urretxuarras y la gente en general los utilice.

## Elkarrizketa / Entrevista

# Urretxu-Zumarragako Euskaltegia\_ \_ Ikasleak “Ausartu euskararekin!”

M.ª Carmen Viedma

Urretxu-Zumarragako  
Udal Euskaltegiak  
aurten matrikula  
garaian “Ausartu  
euskararekin!  
Gauza asko duzu  
esateko!” leloa erabili du.

Helburu honekin,  
ea zer duten  
esateko,  
beraiengana  
hurbildu gara.  
Mahai inguru  
batean

euskaltegiarekin  
harremana duten zenbait  
pertsona, bai irakasle,  
bai ikasle, bai irakasle ohi eta egun  
kolaboratzailea dena,  
bildu ditugu, gaur egungo  
euskaltegiko “argazkia” egiteko.

Aurkezpen txiki bat eta euskararekin duten er-  
lazioa aipatzeko eskatu diet eta hona hemen be-  
raien erantzunak:

**Mikel (irakasle ohia eta kolaboratzailea):** jaiotzez  
naparra, baina Urretxun 33 urte daramatzana. Eus-  
kaltegian 22 urte irakasle moduan eman ondoren,  
hartu nuen aurrejubilazoa, baina denbora nuenez  
egin zidaten eskari bati baietz erantzun nion eta li-  
buru lanketan hasieran eta gero mintzalaguna pro-  
graman parte hartzen ari naiz. “Alboan” GKE-an ere  
lan egiten dut.

**Violeta (ikaslea):** Leongoa naiz, orain hamabost  
urte hona etorri ginen, lanera, senarra eta biok. Ko-  
txe istripu baten ondorioz duela zortzi urte etxeian,  
lan egiteko aukerarik gabe, geratu nintzen. Sena-  
rrak zerbaik ikastera animatu ninduen eta Urretxuko  
EPAn zenbait ikasketa egin ondoren euskara ikastea



erabaki nuen. 6 urte daramatzat euskaltegian. Po-  
liko-poliki noa, asko kostatzen zait baina niretzat  
erronka bat da.

“Mintzalaguna” programan ere banabil azken hiru  
urteetan Mikelekin. Gaur egun interneten bidez ere  
euskarra ikasteko aukera polita daukagu eta sarritan  
egiten dut.

**Mario (irakaslea):** Eta esan behar da Violetak ida-  
tzitako lantxo pare bat HABE aldizkarian publikatu  
dituztela dagoeneko.

**Violeta:** Irakasleei esker hemen nagoela eta euskara  
ikasten poz-pozik nagoela esan behar dut.

**Mario:** Ezkiokoa naiz ni. Orain dela 26 urte hasi  
nintzen euskara irakasten eta geroztik hemen na-  
bil, lanean, gustura gainera.

Gustatzen zait irakaskuntza, baina aurten herrian eus-  
karra biziberritzte plana dela eta euskararekin eta eus-  
kaltegiarekin lotuta dauden lanak antolatzen nabil.

**Lurdes (ikaslea):** etxeokoandrea naiz. 2 ume ditut 14  
eta 10 urtekodak. Alemanian jaio arren Zumarragan  
bizi naiz. Momentuz gutxi dakit. Ulertzen dut baina  
ezin dut ondo hitz egin.

**“Atrévete con el euskera, tienes  
mucho que decir!” fue el lema de la  
campaña de matriculación.**

### \_Kaixo: Zergatik hasi zinen?

**Lurdes:** Empecé con el grupo de Urtxintxa, para tener contacto con el material escolar que utilizaban mis hijos y luego decidí seguir porque no quería perder el contacto con el euskera.

**Montse (ikaslea):** Ni arrasatekoa naiz. Alaba baka-ra daukat 15 urtekoa eta Urretxun bizi naiz.

Hasieran euskaltegira etorri nintzen alabari lagun-tzoko, orain ez, orain nigatik, euskaraz hitz egin nahi dudalako

**Mirenbe (autoikaskuntza tutorea):** Ordizikoa naiz eta duela 2 urte euskaltegi honetara etorri nintzen lanera.

Autoikaskuntza euskara ikasteko beste sistema bat da, azken lau-bost urteetan euskaltegi honek es-kaintzen duena, azkenenko bietan indar handiagoz, gainera. Baldintza bakarra autoikaskuntzarako ordenagailua eta internet eskura izatea da.

Aurten 40 ikasle inguru hasi dira, baina ikasturtean zehar jende gehiago etortzen da, bakarrik ikasten dutenez, edozein momentutan hastea errezago de-lako.

Eskura BOGA izeneko programa informatikoa behar da eta bertan ariketak, testuak, audioak eta gramatika kontsultatzeko aukera izaten dute.

Mintzasaioak egiten ditugu, as-tean behin. Maila beretsuko jen-dea biltzen dugu, gaia aldez aurretik prestatuta. Idazlanak ere, bereziki profila atera behar dutenek, BOGAN daudenez gain, Wiki tresnarekin egiten dituzte.

Tutoretza saioak hasieratik egiten dira, kurtso ha-sieran astero egiten ditugu eta gero hamabostean behin.

**\_Kaixo: Eta sistema honen bidez lortu daiteke edozein maila?**



Eskaintza aurrez aurreko eskolen parekoa da. Maila guztietako jendea daukagu eta emaitza berdina izan liteke.

**Mario:** Mirenbe hona etorri zenetik indartu egin da autoikaskuntza. Bera euskaltegira etorri zenean martxan mintzasaioak jarri genituen, lehen tutore-tzak beste modu batean egiten ziren...

**Liseth:** Peruana, 16 años viviendo aquí. Tengo una niña de 3 años en Gainzuri y a partir de que ella em-pieza al cole veo la necesidad de aprender euskara porque me siento perdida e incomoda cuando no me entero de lo que se habla. No llevo todavía dos se-manas y ya voy cogiendo algunas palabritas sueltas. Ahora mi hija y yo estamos en el mismo nivel.

**Kaixo: Eta profila lanagatik behar duenik ba al dago euskaltegian?**

Herrian benetan perfila behar duen kolektiboa Osakidetzakoa da. Jende asko etortzen da hona eta gainera ospitalean bertan bi talde daude, bat lehenengo profilekoa eta bestea bigarrenekoa.

**La oferta del euskaltegi es muy amplia y se adapta a alumnos de muy diversos perfiles.**

**\_Mikel, zerbait gehiago kontatuko diguzu liburu lanketari buruz?**

**Mikel:** Badaramatzagu 6 urte eta helburua euskara irakurriz gozatzea da.

Hasiera batean euskaldun zaharrak euskaraz irakur-tzen ohitza zen helburua. Hilabetean behin liburu bat irakurtzen genuen eta ariketa batzuk, nik propo-satutakoak, egiten genituen. Orain, berriz, liburua-ri buruzko tertulia antzeko bat egiten dugu.

Ikasturteko sei edo zazpi liburu gutxi gora behera irakurri ditugu. Pentsa, hasieratik dagoenak zenbat liburu irakurri dituen.

**\_Kaixo: Mario, bukatzeko zerbait gehiago esan nahi duzu?**

Bai, aurten beste ekimentxo pare bat egingo ditugula: bata, Segura Irratian, beste euskaltegi batzuekin konpartitua, 5-10 minutuko irratia saiotsa batzuk egingo ditugu euskara txukuntzeko asmoarekin eta bestea "Ongi etorri" izeneko 10 orduko ikas-tarotxoak, dohaien, euskara ez daketenek euskararekin lehen harremana izateko. Hauek urtarriletik aurrera izango dira.

## Irigon baserriko haizeola

*Jon Castrillo*

**Duela urte pare bat,  
Kantauri aldeko haizeola  
zaharrenak Galdakaoko mendietan  
aurkitu zituztela jakin genuen.  
Aurkitutako 35 haizeolen aztarnek  
X. eta XII. mende bitartean  
eraikitakoak zirela egiaztatzen  
omen zuten.**

Baina ez gara ez denboraz ez lurraldez hain urrutira joan behar burdinola mota berezi horien berri izateko. Burdin haranaren erdian kokatuta egonda eta, "Ur-ola" ibaiaren urak gure begien aurretik etengabe pasatzen uneoro ikusita, ez da batere harritzekoia izango, beraz, Urretxuk ere baduela zer esanik arlo honetan, esaten baldin badugu. Hasteko, eta adituek diotenez, "haizeola" izenak berak, jatorri goierritarra omen du.

Mendiko labe txiki hauen funtzioa, meategietan jasotako burdin minerala metal bilakatzea zen, gero nekazaritzarako tresneriak, armak eta bestelako gauzak egiteko.

Gehienetan mendi maldaren zonalde haizetsuetan kokatzen ziren - aditu batzuen ustez hori omen da "haizeola" izenaren arrazoia-, horrekin, sua bizirik irautea ziurtatzen zu-telarik.

Komenigarria omen zen ere, inguruan, nahiko egurra eskuera izatea (1 kg budin lortu ahal izateko 100 kg ikatz begetala behar baitziren), baita aldamenetik erreka-ren bat pasatzea eta burdin meategiak ere oso urrutiz ez egotea. Urretxuko Irigon (Irigoyen) baserriko haizeolak, noski, baldintza hauek guztiak betetzen zituen.

Egindako burdin hautsen analisiek, ordea, haizeola hauetan lortzen zen burdin kopurua oso eskasa

zela egiaztatzen dute; aztertutako eskoria hauek, oraindik %58 eta %80 ko burdin kopuruaz osaturik zeudela ziurtatu baitute.

Horregatik, etekin handiagoak lortzea bilatuz, XIV. mendean, uraren indarrarekin funtzionatzen zuten burdinolen sorrerarekin batera, haizeolen desagerpena eterri zen. Oso denbora gutxian ia gehienak estaliak izan ziren. Kasu batzueta ber-tako pertsonek edota animaliek istripurik izan ez zezaten. Beste batzueta, baserriko lurrik lan-tzean gertatu zen eta oso kasu gutxitau, berriz, nolabait labe horiek aprobetxatu nahian, karobi bihurtuz.

Baina, udal artxiboan aurkitutako dokumentu bat-tek dioenez, Irigongo haizeola XVI. mendean bi-zirik omen zegoen oraindik. Dokumentu horren arabera, konkretuki 1589ko apirilaren 13an amaitutzat eman omen zen Urretxuko parrokiko "San Martin" - izen horrekin bataiatu zuten bedeinkatu zuten egunean- kanpai nagusiaren fundizio edo galdaketa.

*Eta halaxe maisuki erakutsi ere,  
1982ko Euskal Jaiaren ibilbidean,*

*Txintxarri koadrilak kaleratutako karrozaren bitartez.  
Irigongo haizeolari eskainitako omenalditxo honek, epaima-haiaren lehen saria irabazi zuen*



**Kaixo txiki**

# “EUSKAL BANDOLEROAK”

Ana Isabel Iturbe

Irailean aurkeztu ziren buruhaundi berriak Urretxun, “Euskal bandoleroak”. Bandolero hauek aspaldian Deskargako mendatean gora behera zebiltzan lapurrak omen ziren...

Ikusi al zenituen Santa Anastasia jaietan?

Beraien argazkiei begiradatxo bat eman, a ze aurpegiak!!



“Euskal bandolerua  
hor zaitugu PATAKON  
ilunean lanean,  
ihesi ta hor konpon”



“Euskal bandolerua  
BIZARBELTZ oiartzuarra  
lapurretarako badu  
kemena ta garra”



“Euskal bandolerua gora  
FRANTSES TXIKIA  
Eder zure maitale  
etxeeko zaindaria”



“Euskal bandolerua  
EDER da zure izena  
saltzaile, tabernari,  
maitalea hurrena”



“Euskal bandolerua  
Domingo GALTXAGORRI  
Tolosako gizona,  
gerra askotan gudari”



“Euskal bandolerua  
Irundarra da GIÑI,  
kortsario, mikelete,  
non ez zinen ibili”

Kontuz, txiki, hurrengo jaietan kalean ikusten baditzu, azkar azkar lasterka egin, ez zaitzatela harrapatu!!! Hori bai, festarik festa ibiltzea izugarri atsegin dute, parrandazaleak dira, zu bezela, ezta?

# Santa Lutzi Feria

## Urretxu-Zumarraga 2009



abenduak  
**12**  
larunbata  
sábado

Arabako Errioxako  
Ardo Lehiaketa eta Azoka  
*Concurso y Feria de Vino de la Rioja Alavesa*  
18:00 - 21:00: Azoka Iparragirre plazan  
20:00: Lehiaketa udaletxeko areto nagusian

abenduak  
**13**  
igandea  
domingo

**SANTA LUTZI FERIA**

Santa Lutzi aldizkaria zure eguneroko prentsarekin batera  
aurki dezakezu.

*La revista de la Feria de Santa Lucía disponible de forma gratuita  
en los puntos de venta de prensa.*

Berritasuna / Novedad

Poltsa gehiegi dituzu  
feria ikusteko?  
*¿Demasiadas bolsas  
para disfrutar de la feria?*

Aurten kontsigna zerbitzua izango duzu  
Urretxuko Gernikako arbola plazan eta  
Zumarragako Zelai-Arizti kultur etxearen

*Este año habrá servicio de consigna en  
la plaza Gernikako Arbola de Urretxu  
y en la casa de cultura  
Zelai-Arizti de Zumarraga.*

